



BARREN
TOKIKOM



Asmaola,
enpresen zerbitzura



Ate irekien eguna

Apirilak 27

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

LANDA

Asteazken zehar 8:30etik aurrera irekita



Irekiera BERRIA!



Rabak
Pintxoak
Ogitartekoak
Kazulatuak
Plater konbinatuak
Hamburgesak
Gosariak

Ostiral eta larunbat gauetz, diskoteka!

San Frantzisko 23
T. 843 980 107 (Iñigo da)

federópticos
Ikus

audiocentro
Ikus

Honako sintoma
hauetakoren
bat baduzu?

- Buruko mina
- Ikusmen-nekea
- Begietako azkura
- Begi-keina
- Hatzamarrarekin irakurtzea

Bi begien azterketa
egnez, antzeman
dezakegu edozela
ikusmen-difuntzio,
eta tratamendua
eman diezazukegu.



Jose Artetxe, 10
Tel: 943 15 75 74 - AZPEITIA
Zigordia kalea, 7
Tel: 943 133 151 - ZARAUTZ
San Bartolome kalea, 10
Tel: 943 743 734 - ELGOIBAR



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



“Kazetari batek bere lana egittiagatik zela jaso leike isuna?”

Mozal legiaren inguruan natorkizu, Abel. *Argia*-ko Axier Lopezi gertatutakuak harrittuta nauka oindiok. Atxiloketa baten berri eman eta ordainetan zer? Isuna. Lege honen arabera albistia kaleratziak polizien beraien segurtasuna kolokan jarri dau. Nola leike ba, argazkixetan arpegirik ere ez bajakue ikusten?

Zer egin bihar dabala suposatzen da ba? Albistia gertatzen darian kazetari guztiek buelta erdi eman bihar dabe, eta beste zerbaiti buruz hitz egin. Hori da gakua itxura danez: bide ofizialetatik jasotako komunikatuen berri bakarrik ematia: “Zuk guri komeni jakuna bakarrik zabaldu eta erreztasunak izango dittuzu. Bestela, prest egon”. Sarri pentsau izan dot komunikabidiek kaleratzia nahi dogun hori ahalik eta landuen helaraztia komeni jakula, argazki eta guzti ahal bada, espazio haundixaua eskeini deiguen. Horretarako dauzkate erakunde

publiko eta enpresa haundi askok komunikazio arduradunak.

Baina komunikatu ofizialez gain, kazetari batek bere lana egittiagatik zela jaso laike isuna? Zeinek kontatuko dizkigu orduan benetako albistiak?

Nunbaitten irakurri dot kazetaritzaren funtsa norbait deseroso sentiaztia dala, hortik kanpokuak harreman publikuak diala. Miresgarrixa iruditzen jata, adibidez, Ane Irazabalek egitten daban lana, *freelance* moduan munduan gertatzen dana barrutik eta gordin kontatzeko daukan abilitadiakin. Honen lanak ere bati baiño gehixagori sortu die azkuria. Nola jakingo genduan bestela Siriako errefuxiatuekin gertatzen ari dana?

Portzierto, oinguan *Libertad Digital*-eko lagunek kale egin didate Axierren kontuan; ez dabe tutik ere aipau, nahiz eta euren lanbide bereko laguna izan.



ABEL ARRIAGA



“Debekuaren hautua ez zait egokiena iruditzen”

Libertad Digital-eko gure lagunak, lanpetuta ibiliko dira Panamako paperak aztertzen, Andoitz. Mozal legea ez da berria. Betidanik egon dira indarrean, segurtasunaren izenean, adierazpen askatasuna mugatzen duten legeak. Bai hemen eta bai mundu zabalean: hor ditugu WikiLeaks afera, Tiananmen-go gertakariak eta beste ehunka adibide.

Axier Lopezen kasuak, gurean mozal legea noraino hel daitekeen erakusten digu: kazetarien lana kolokan jartzeraino. Debekatutako argazkia, deliturik ikusteko gai ez garen edonork igo genezakeen sarera.

Honen harira, gogoan dut ikasketa bukaerako ekitaldian irakasle batek eman zigun hitzaldia. Historian zehar, giza-kion bizimodua aldatu duten aurkikuntza, asmakizun eta gertaerei buruzkoa zen bere jarduna. Suaren aurkikuntza, iraultza industrial eta Interneten asmakuntza bezalako mu-

garriez gain, gaur egun bizitzen ari garen sare sozial eta blog bidezko interakzioa aipatzen zuen hizlariak.

Twitter eta Facebook bezalako erremintak informazioaren monopolioarekin bukatzen ari dira poliki-poliki. Edonork igo eta zabaldu dezake informazioa sarean. Kontsumitzaile izatetik, sortzaile ere izatera pasatu gara. Irakurle soil izatetik, kazetari ere izatera. Inoiz ez da horrenbeste jenderen eskura egon, sarean iritziak zabaldu eta besteengan eragiteko aukera. Txanponaren beste aldean daude, informazioa kontrolatzea helburu duten legeak. Ahalegin antzua, nire ustez: ez dago olatu hau geldituko duen legerik.

Dena dela, demagun mozal legea borondate onenarekin eginda dagoela. Guztion segurtasuna bermatzea, beste helbururik ez duela. Hori horrela izanik ere, debekuaren hautua ez zait egokiena iruditzen. Ostrukarena egiteak, arazoak ezkutatatu bai, baina ez ditu konpontzen.



Beti gustatu izan zait gaueko taberna giroa. Ez parranda giro zoroa, modu lasaian eta lagunartean hitz egiteko giroa. Musika ez oso bolumen altuan dagoela eta garagardo eskuan hartuta, hizketaldi lasaien giroa.

Gogoan dut duela urte batzuk ostiral gauean lagun talde bat Iratxo tabernan elkartzen gineneko garaia. Garagardo batzuk hartzen genituen bitartean, elkarri kontuak kontatzen genizkion. Eta askotan umore bidez situazio surrealista imajinatzen iristen ginen, barre algara

artean. Gogoratzen dut behin Jamaikara joan nahi genuela eta, nola antolatu pentsatzen hasi ginela. As-tero dirua batzen hasiko ginen, bidaia egiteko diru haina batu arte. Fundamentu falta ikaragarria aurreikusten zen arren, kontratu barregarri bat sinatzera iritsi ginen. Uste dut 35 euro inguru ditugula konturen batean hor nonbait...

Egun horietako batean jaialdi imajinario bat asmatu genuen. Elgoibarko musika talde guztiak beraien artean kolaboratzen zuten bertan, bikoteka. Horrela, ezinezko bikote arraroak imajinatu

“Ezinezko bikoteak imajinatu genituen elkarrekin jotzen, Gelatxo eta Guasseko DJ taldea...”

genituen elkarrekin jotzen: Gelatxo eta Guasseko DJ taldea edo Koello104 Kale Kantariekin batera. Barre algara artean, herriko musika talde guztiak bikoteka elkartu genituen, elkarlan surrealista eta giro zoroak imajinatu.

Bazuen kontu hark kutsu polit bat hala ere. Herritarron artean elkarlanean zerbait egiteko aukera. Jarduera indibidualetik irten eta konplexorik gabe beste jende batekin gauzak eraikitzeak aukera.

Eta ederra izango litzatekela esanez elkar agurtu eta bakoitza bere etxera bideratu ginen, irrifarrearekin ahoan eta utopia absurdo horren ideia oraindik buruan genuela dantzan.

Ezinezkotzat eman genuen ideia hura (edo honen zati bat behintzat) egia bilakatuko da laster, ordea. Ezinezko kolaborazio horietako bat taula gainean ikusteko aukera izango dugu. Ikusiko dugu emaitza, baina ideia behintzat mundiala iruditzen zait niri.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
bizi 1403



Gizarte eta Kulturako Foru Aldundia



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► XXIII. J. GURRUTXAGA KROSA

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 17an, egindako XXIII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Iturri taberna, Usua kafetegia, Jai Alai, Arkupe, Tantaka, Mahats ardote-gia, Ametsa kafetegia, Larre, eta batez ere, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Alcorta Forging Group, Alyco, Danobat Group, Kutxabank, El Diario Vasco, BM, Egile, Laserlan, Original Komunikazio Grafikoa, Biena Aroztegia, Elgoibarko Lagun Taldea, Egotoki eta Gare Radio Club.

Bestalde eskerrik beroenak ere, parte hartzaile guztiei.

Datorren urtean, apirilaren 2an egingo den, XXIV. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Krosa Batzordea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitzik argitaratuko.

Berrikasi eta berrikusi

hitzaldi-tallerre

"Euskaltzetasunaren azken hamarkaden irakurketa kritikoa, etorkizuna begi berriz ikusteko helburuarekin egina. Eztabaida zintzoa suspertu nahi luke orain arte egin dugunaz, eskarmentu horrekin hobeto ekin diezaioگون egiteko dugunari".

**Kike Amonarriz eta
Iker Martinez de Lagos.**

**Apirilak 25, astelehena
19:00**

Kultur Etxeko hitzaldi-gela



Beste bi gudariren gorpuzkiak atera ditu Aranzadik Zelaietaburuko muinoan

Etxebarriko Zelaietaburun, Elgoibarko lurretatik metro gutxira, 1936ko gerrako beste bi gudariren gorpuzkiak hobitik atera zituen Aranzadik domekan, apirilaren 17an. Era berean, omenaldia ere egin zieten inguru hartan jardun zuten gudari eta borrokari antifaxista guztiei.

Martxoaren 5ean gudari baten gorpuzkiak azaleratu zituen Aranzadik zelaietaburun. Beste bi gudariren gorpuzkiak ere topatu zituzten domekan, aurrekoaren ondoan. Aranzadiko teknikari talde batek jardun zuen lanean. Ahaztuen Oroimena eta Markinaldeko Frentea 1936 elkarteetako kideak laguntzen ibili ziren.

“Zientzialariek buruz gora aurkitu zituzten bi gorpuzkiak, nahiko egoera txarrean, deseginda, eta beraz, itxura batean oso gaitza izango da nortzuk diren jakitea”, adierazi du Ahaztuen Oroimena elkarteak. Hala ere, gorpuzkiak Aranzadiren esku geratu dira azterketak egin ahal izateko. Gorpuzkien ondoan hortzak garbitzeko eskuilak, gerrikoen zatiak, urrezko hortzak, txanpon bat eta hortz protesi bat ere agertu ziren.

Testigantza baliagarriak

Testigantzen bidez ailegatu dira ikerlariak eta zientzialariak Zelaietaburura. Elgoibarko Soarte baserriko Pilar eta Jose Mari San Martin neba-arrebak jolasean



ibiltzen ziren umetan inguru horietan.

Ignazio eta Santi Retolaza anaia elgoibartarren lekukotzak ere garrantzitsuak izan dira gorpuzkiak aurkitzeko: umetan Mariano aitari entzun zioten Kalamuatik Iruiturra jaistean, “han, harkaitz haietan, hiru hildako ikusi nituen”, Zelaietaburura seinalatuz. Aitak esaten ziena gogoan gorde dute. Mariano Retolaza argiketaria zen, eta argi kableak konpontzen zituen. Handik hurre dagoen Belaustegin zegoela, hiru hildako zeudela enteratu eta kableak jarri behar zituen aitzakiarekin ikustera joan zen, ezagunen bat zen jakin nahian, bere anaia ere falta zen eta. Hiru gizon ikusi zituen lurrian, oraindik lurperatzeko. Soartekoen eta Retolazatarren testigantzak lotuz aurkitu zuten gudariak lurperatuta zeuden gunea.

Omenaldia

Omenaldia ere egin zieten inguru hartan borrokan aritu ziren gudari eta borrokari antifrankistei. Loreak eta azken agurra eskaini zizkieten. Ekitaldian egon ziren Pilar San Martin (eserita) eta Santi Retolaza, bere familiekin. Aranzadi eta Ahaztuen Oroimena elkarteak kideez gain, ehorzketa-lanak egin dituzten lekuan egon ziren Jesus Iriondo Etxebarriko alkatea, Ane Beitia Elgoibarko alkatea, Monica Hernando Giza Eskubi-deen eta Biktimen zuzendaria eta Elgoibarko Udaleko eta Elgoibar 1936 elkarteak ordezkariak.

Elgoibarko esperientziaren berri

Bestalde, aurreko zapatuan Andoainen ekitaldia egin zuten frankismoko biktimen omenez, eta antolatzaileek euren esperientziaren berri emateko gonbidatu zituen Elgoibar 1936 taldea. Hodei Otegi eta Iñaki Odriozolak Elgoibarren memoria historikoa berreskuratzen egiten diharduten lanaren berri eman zuten. Ekitaldian, Franco hil osteko trantsizio politikoa salatu zuen Odriozolak, biktimak isilik jarraitzera “derrigortu” zituelako, eta frankismoari “inpunitate osoa” eskaini ziolako.



Elgoibarko jubilatuek txangoa egin dute Andaluziara



Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak Andaluziako hainbat txoko ezagutzeko txangoa antolatu zuen, eta azken egunetan Cadiz eta Sevillako herriak ezagutzen izan dira Elgoibartik joandako 50 bat erretiratu. Cadizko Puerto de Santa Maria herrian ostatua hartu eta, handik abiatuta, Cadizko eta Sevillako hainbat herri eta leku esanguratsu ezagutzeko txangoak egin zituzten. Espainia eta Gibraltar arteko muga ere zeharkatu zuten, eta Gibralartako harkaitz ospetsua ezagutzeko aukera izan zuten, goiko argazkian ikus daitekeen moduan.

Mondragon Taldeko buru izendatu dute Iñigo Ucin, Danobat taldeko presidentea



Mondragon Korporazioaren Batzorde Iraunkorrek Iñigo Ucin (Azkoitia, 1960) izendatu du Kontseilu Orokorreko presidente. Kargua abuztuaren 1ean hartuko du. Danobat kooperatibako gerente izendatu zuten Ucin 1988an, eta 2012ko irailean, Mondragoneko Erreminta-Makinaren Dibisioko lehendakariorde. 2015eko ekainaz geroztik, kargu hori eta Industria Automatizazioko Dibisioko presidenteordetza bateratu zituen. MUko Kontseilu Errektoreko lehendakaria ere bada.

Xabier Gomez apaiza, European bakea sustatzeko dominikoen arduraduna

Xabier Gomez (Azkoitia, 1970) apaiza 1994an etorri zen Elgoibarrera eta hainbat urte bete zituen parrokiako lanean. 2003an Dominikoen ordenean sartu zen eta Madrilgo Nuestra Señora de Atocha komentuko bikarioa da gaur egun. Orain, Dominikoen ordenako maisu anaia Bruno Cadorek European justizia eta bakea sustatzeko arduradun izendatu du



Sei aste iraungo dute Maalako errotondako lanek

Astelehenean hasi ziren Maalako biribilguneko lanak. Etorkizunean errotonda itxia izango da Maalakoa eta erdiko bidea kendu egingo dute. Lanen iraupena sei astekoa izango da. Bitarte horretan, Pulimentos Paco aurreko semaforoa ez da anulatuko, lanak amaitu bitartean oinezkoak handik pasa daitezten. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak aurreko astean argitaratu zuen lanen kontratuaren formalizazioa. Campezo Obras y Servicios SARI esleitu dizkiote lanak. Esleipenaren zenbatekoa 106.652,42 eurokoa da (gehi %21eko BEZari dagozkion 22.397,01 euro).

Bi eguneko jardunaldiak antolatu ditu Jaikik, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoak plazaratzeko

Gazteei zuzenean eragiten dien gaia izanik, horren gaineko kontzientzia hartu eta proposamen eta alternatibak lantzeko etxebizitzaren eta gazteek etxe bat eskuratzeko dituzten zailtasunen gaia plazara ateratzea erabaki du Jaiki taldeak. "Elgoibarren badago etxebizitzaren inguruko arazoa eta horien prezioak ez daude gazteen eskura. Alokairu merkaturik ere ez dago apenas eta, oso txikia izanik, daudenek gehiegizko prezioak daukate (hiru logelako etxe batek 600 eurotik gora)", dio Jaikik. "Arazoak mugak jartzen dizkigu, gazteoi, gure bizitza autonomoki edo era burujabeaurrera eramateko". Horretatik abiatuta Elgoibarko egoera plazaratu nahi dute, datu esanguratsu batzuk emanez jendearengan gai horrekiko kezka pizteko. "Naturalizatu daukagun arren, ez da egoera naturala, zerbait eraikia baizik, aldatzeko moduko zerbait. Beraz, egoera horren salaketa egin nahi dugu".

Hori guztia *Etxebizitza Plazara!* ekimenaren bidez egingo dute apirilaren 22an eta 23an Kalegoen plazan. "Gazteontzat etxe bat edukitzeko aukera bakarra bizi osorako hipoteka bat izan ez dadin", etxebizitza eskubidearen defentsan plazaratu agertzeko deia egin die Jaikik herritarrei.

Hainbat alternatiba

Barixakuan plaza girotu ondoren, etxebizitzaren arazoa bideratzeko bi alternatiba ezagutaraziko dituzte: Gasteizko Errekaleor auzokoa. Udalak 2002an eraistea erabaki zuen etxe berriak egiteko, baina auzokideen erresistentzia eta 2013ko okupazio bat medio, asko dira auzora bizitzera joan eta autoantolakuntza eta autogestioa oinarri hartuta bestelako bizi ereduak jarri dute martxan. Azpeitiko Bizi dinamikaren bidez, berriz Udal eraikinak gazteentzako etxebizitza moduan



Nerea Gurrutxaga.

Jaikik herritarrei dei egin die etxebizitza eskubidearen defentsan plazaratu agertzeko.

egokitzeko aukera proposatu dute.

Informazioa jaso ostean afaria egongo da eta kontzertua gero. Musika isildutakoan plazan bertan egingo dute lo "gazteek etxerik gabe gaudela erakusteko sinbolikoki adierazgarria izan baitaiteke".

Elgoibarko datuak

Zapatuan, gosaldur ondoren, Europako etxebizitza hutsen politika aztertuz hasiko dute jardunaldia. "Europa askatasunen paradigma moduan jarri gabe, baina ikus dezakegu arraroak iruditzen zaizkigun gauzak gerta daitezkeela. Esaterako, herrialde batzuetan etxe bat urtebete hutsik dagoela egiaztatuz gero etxe hori okupatzeko aukera dago".

Gai nagusia, ordea, Elgoibarko egoera aztertzea izango da. "Elgoibarren ez dago etxebizitzaren inguruko diagnostiko serio bat eginda, baina badaude datuak Eustatetik edo HAPOTik (Hiri Antolamenduen Plan Orokorra) jasota. Hor ikusten da, esaterako, zenbat etxebizitza dauden hutsik (732, herriko etxe guztien %13,46 eta Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoren gainetik), zenbat eraiki diren

(2001etik 1.000tik gora) edo datozen urteetan zenbat eraikitzeko aurreikuspenak dauden (1.200).

Bakoitzak bere etxetik atera behar izaten ditu kontuak, baina etxerik ez dagoen oro har etxebizitzaren arazoa bera izango dute konturako gai.

EGITARAUA

Apirilak 22 eta 23

22 BARIXAKUA

17:30 Plaza giroten: muntaketa, marrazkiak...

19:00 Inguruko alternatiben esperientziak: Bizi dinamika (Azpeitia) Errekaleor auzo askea (Gasteiz).

20:30 Afaria.

22:00 Kontzertua: Abian, Dardara akustik, Larra...

Gero, Plazan lo.

23 ZAPATUA

9:00 Gosaria

10:30 Autoformakuntza: Etxebizitza hutsen politika European.

12:30 Elgoibarko egoeraren azterketa eta proposamenen lanketa.

13:30 Pentsaurrekoa eta argazkia.

Asmaolak erantzuna emango die enpresa txikien berrikuntza beharrei

Asmaola eraikinaren inaugurazioak birbildu du IMHren 25. urteurrena. Eraikin honen bitartez, IMH gai izango da modu egokiagoan erantzuna emateko bai Elgoibarko eta inguruko enpresen beharrei, bai industrian formatzen diren pertsonen beharrei. Iñigo Urkullu lehendakaria buru, erakundeetako, enpresetako, eta unibertsitate alorreko hainbat ordezkari izan ziren Elgoibarren martitzeneko inaugurazioan. TKgune Fabrikazioa proiektuaren instalazio berriek jakintza, makineria eta azpiegiturak eskainiko dizkie berrikuntza alorrean soluzioak behar dituzten enpresei (tamaina txikikoak, asko). Prozesu horretan irakasleek pilotutako jakintza ikastetxean aplikatuko dute gero, ikasleak modu hobean formatu ahal izateko.

- OIER NARBAIZA -



Elgoibarko eta eskualdeko enpresa gehienak tamaina txiki-koak dira, eta Asmaolak, TKgune Fabrikazioa proiektuari esker, posible egiten du berrikuntza alorrean zerbitzua ematea lantegi txiki horiei. Bestela, ezin izango lukete. Azpiegiturak eta makineria erabiltzeko aukera ere badute enpresek, proiektuan parte hartzen ari diren irakasleek urteetan pilatu duten jakintzaz gain.

Proiektu honen bidez "bertutezko zirkulua" lortu dela adierazi zuen inaugurazio ekitaldian Xabier Ortueta AFM eta IMHko lehendakariak. Alegia, TKgune proiektuaren bidez, berrikuntza alorreko zerbitzua eskaintzen diete irakasleek soluzio bila dabilzan enpresei. Prozesu horietan sortzen diren jakintzak pilotatzen dituzte irakasleek, eta eskarmentu hori guztia ikastetxeetako klaseetan era-

biltzen dute. Era horretan, ikasleak modu egoki eta praktikoan formatzen dituzte. Eta gero, enpresetan lan egiterakoan TKgune Fabrikaziora joko dute soluzio bila.

TKgune Fabrikazioa proiektuan, Lanbide Heziketako beste hamabi ikastetxerekin batera parte hartzen ari da IMH (Usurbil, Txorierrri, Egibide, Somorrostro, Tolosaldea, La Salle Berrozpe, Goierri, Bergara, Elorrieta Erreka Mari, Bidasoa, Oteiza eta Lea Artibai).

25 urteko ibilbidea betetzen ari da IMH aurten, eta ibilbide horrek guztiak balio izan dio fabrikazio zentroen artean aitzindari izateko. Enplegura bideratutako ibilbide malguak eskaintzen ditu. Horretarako alternantzia duala eskaintzeari ekin zion: formazio aldian, beraz, lantegiko lana eta zentroko klaseak uztartzen ditu.



Azken batean ikuspegi integrala sartu du IMHk bere hezkuntza eskaintzan. Alde batetik, fabrikazio mekanikoko eta mantenuko heziketa zikloak eskaintzen ditu Lanbide Heziketan. Guztira, LHko heziketa zikloetan 2.000 ikaslek baino gehiagok ikasi dute.

Bestetik, Ingeniaritza Dualean prozesu eta produktuetan berrikuntza gradua eskaintzen du. Ingeniaritza duala ematen duen ikastetxe bakarra da Euskal Herrian. 500 ikasletik gora izan dira ingeniaritzako ikasketa horiek egiten azken urteotan. Gaur egun, 148 ikasle ari dira.

Horrez gain, 50.000 langile baino gehiago pasatu dira IMHko prestakuntza iraunkorrekiko ikastaroetatik. Teknologien inguruan, enpresen eta langileen beharretara egokitu direla nabarmendu du IMHk.

Badira, gainera, bestelako prestakuntza programa eta jarduerak. Incess izenekoak garapen kompetentziala eta antolatzailerak garatzen du. TKguneko Fabrikazioak enpresa txiki eta ertainentzat transferentzia eta berrikuntzak eskaintzen ditu. Erre-

minta-makina sektorearekin batera hezkuntza-teknologia transferentzia ere lantzen dute.

ORDEZKARITZA ZABALA

Enpresen fabrikazio beharretara egokitutako irakaskuntza mota honen beharrak berebiziko garrantzia du IMHko ardura-dunen iritziz, inguruko industria garai berrietara egokitu ahal izateko. Erakundeen eta enpresen artean sinergiak aldarrikatu dituzte. Haien esanetan, lan handia egin dute era honetako irakaskuntzaren beharra ikusarazteko.

Erakundeetako eta enpresetako ordezkariak ulertu dute mezua. Erakundeen inbertsiorik gabe ezinezkoa izango zen Asmaolaren eraikina. Martitzeneko inaugurazio ekitaldiko ordezkarien kopurua eta maila ikusita, agerian gelditu da erakundeak jabetu direla proiektuak inguruko industrian duen garrantziaz.

Iñigo Urkullu lehendakariak gain, Xabier Ortuetak AFM eta IMHko lehendakaria, Markel Olano diputatu nagusia eta Ane Beitia alkatea izan ziren inaugurazioan. Eusko Jaurlaritzak hiru sail-

25 urteko ibilbidea

1989: IMH jaio zen, metal alorreko ikasketa profesionalak eguneratzeko asmoz eta industria sektorearen beharrei erantzuteko asmoz. Horrekin batera, enpresa txikiei zerbitzua emateko helburuarekin ere jaio zen. Hori lortzeko, beste ikastetxe batzuen zereginak osatu beharko zituen eta enpresetik harremanak modu iraunkorrean egituratu beharko zituen.

2006: Lerro estrategiko bat ezarri zuen IMHk. Enpresa txiki eta ertainen produktuak eta zerbitzuak hobetzeko beharrei erantzutea, formazio jarraian eta hasierakoan jarduera osagarria lortzeko. Urte berean, mikroenpresentzako irtenbideak dokumentua idatzi ondoren, enpresa-buru esanguratsuen ekarpenak jaso zituzten. Innobazio aplikatua zenbait proiektu planteatu ziren.

2007ko urria: Berrikuntzako bitarteko erakunde izendatu zuen Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareak.

2008: Giga proiektua (Gaitasun Industrialak Garatzen) sortu zen, IMH, Meka eta Ameriaren lankidetzarekin. TKguneren aurrekaria izan zen.

2009: Asmaola proiektuaren bideragarritasuna onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza sustatzeko asmoa zuen proiektuak, I+G+B sistematik kanpo.

2008-2012: Zenbait proiektu garatu ziren. Gero eta gehiago izan ziren; gero eta konplexuagoak. LHko Sail-



JOXEAN EGAÑA, IMHko zuzendari kudeatzailea

“Arazoak konpontzen ditugunean gaitasun batzuk hartzen ditugu”

◆ Zer da asmaola?

Asmo bati jarritako izen bat da. Zein den asmo hori? Lanbide Heziketan beti egon dira irakasle batzuk, harreman estua izan dutenak enprekin, prozesuak eta ezagutzen zituztelako. Harreman hori oso pertsonala zen. Zer pentsatu genuen guk? Zerbait estrukturatuagoa egitea posible dela, zerbitzu edo programa modura. Behin-behinekoa zena estrukturatu genuen. IMHn kapaz gara enpresari zerbitzu teknikoak emateko, enpresaren arazo tekniko batzuk konpontzeko, eta, batez ere, lagun-

tzeko bere berrikuntzako eskaintzen no-bedadeekin bai prozesuetan bai produktuetan.

◆ Noiz hasi zen ibilbidea?

Planteamendua orain hamar urte etorri zen. Beste zentro batzuekin sarean egin genituen planteamendu batzuk, Debarrean; gero hori joan zen TKgunera, beste estrategia batera, horiek 13 zentro dira fabrikazioan, eta guk daromagu lidergoa. Hor indar bat dago, eta esan daiteke Gobernuaren Hezkuntzako estrategia bat ere badela enpresa txiki-kin berrikuntza sustatzeko sareka eta sektore batzuetan. Gu fabrikazioan gaude, badaude beste sektore batzuk ere bai, baina ibilbide luzeena fabrikazioak du.

◆ Horrek guztiak zer abantaila ekarri dizue?

Badago bertutezko zirkulua esaten dioguna: konpontzen ditugu arazoak (laguntza eskatzen dugu sareka, elkarri lagunduz), eta konpontzen ditugunean gaitasun batzuk hartzen ditugu, beste problema konplikatuko bat konpontzeko balio dezaketena. Ezaguera bat sortzen da, ezaguera hori hezkuntzan sartzea posible da: lanbide heziketan, prestakuntza iraunkorrean, prestakuntza aurreratuagoetan ere emateko. Irakasleentzat hori baino erreziklaje potenteagorik ez dago, departamentuetan bermatzen da maila teknologikoa.

buru bidali zituen inaugurazio ekitaldira: Arantza Tapia Ekonomiarren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua, Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eta Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua. Horiez gain, enpresaburuak, UPV/EHUko Iñaki Goirizelaia errektorea, Merkataritza Ganberako arduradunak eta industria eta ekonomia alorreko hainbat eta hainbat ordezkari ere izan ziren Elgoibarren.

Hitza hartu zuten arduradun guztiak IMHren lana gorai patu zuten. Iñigo Urkulluren esanetan, “Euskadik pertsona trebatuak eta espezializatuak behar ditu, industriaren etorkizuneko erronkei erantzuna emateko gai izango direnak. Hori lortuz gero, konpetitibitatean irabaziko dugu, enplegu aukeren eskaintzak sortuko dira eta kohesio sozialean aurrera egingo dugu”. Bere iritziz, berrikuntza behar duten enpresen bidelaguna izango da Asmaola.

buruordetzako irakasle batzuk liberatu ziren horretarako. Epe berean, zenbait adostasun lortu ziren proiektua egiteko eta ekipamenduak finantzatzeko: Kutxaren Gizartekin-tza (500.000 euro), Adeg (200.000 euro), Jaurlaritzaren Industria Saila (400.000 euro).

2014: Berrikuntza aplikatua lau gune estrategikotan ezarri zuen LHko Sailburuordetzak: fabrikazio aurreratua, ferrobiarioa, automozioa eta energia. Era berean, TKgune estrategia sendotu zuen.

2014ko maiatza: Nazioarteko LH Kongresua. “Lanbide Heziketaren laguntza berrikuntza aplikatuari Euskal Herriko enpresa txiki eta ertainetan” txostena aurkeztu zuen

plenarioan. IMH aitzindari bihurtu zen, LHko ikastetxeetan berrikuntza aplikatua sarean lantzeari dagokionean.

2014-2015: Gipuzkoako Foru Aldundiak 875.000 euro jarri zituen proiekturako. Danobat Groupek 150.000 euroko eta Onak 54.000 euroko deskontua egin zuen makinetan. Elgoibarko Udalak lurrak, 165.000 euro eta erakunde interlokuzioa jarri zituen.

2015-2016: Ikasturte honetan TKgune fabrikazioa berrikuntza, teknologia transferentzia eta garapen lehiakorra da. 13 zentrok eskaintza espezializatua eskaintzen dute. Ikasturte berean, Fabrikazio Aurreratuen Nodo izendatu dute IMH.



Eneko Silva (Bankoako Zonalde zuzendaria)

Etxebizitza maileguak eskatzeko momentu egokia

Gaur egun etxebizitzaren merkatuan, erostera bultzatzen duten lau adierazle ikusten ditugu:

- ▶ Interes-tasak inoizko mailarik baxue-
nean dauzkagu. Euriborra hutsean dago
negatiborako joera azalduz. Epe motz eta
ertainera, gaurko ikuspegitik eta daukagun
egoera ekonomiko orokorrekin, ez zaigu
iruditzen asko aldatuko denik.
- ▶ Etxebizitzaren prezioak jaitsi egin dira eta
bakoitzaren egoera ekonomikoetara egokitu
daitekeen eskaintza nahiko handia dela iru-

ditzen zaigu. Babes Ofizialeko Etxebizitzaz gain, merkatu libreko etxe asko hauen prezioen parean edo azpitik ere aurki ditzakegu. Kasu horretan ere, eskaintza handia eta egungo egoera ekonomikoa medio, ez dugu uste, momentuz, prezioak igoko direnik.


- ▶ Europako Banku Zentralak, banketxeak dirua ia derrigor mailegatzerara behartzen dituen politikak jarri ditu martxan QE programaren bitartez. Horrekin krediturik ematen ez duten banketxeak zigortu egingo ditu. Hau da, mailegurik ez emateak bankuentzat kostu gehigarria ekarriko du.




ETXE AGENTZIA
Bernardo Ezenarro 2
943 743 492




Deba - Itsasbegi
Etxebizitza salgai
4 logela, 2 komun, egongela,
sukaldea, 2 igogailu, 12 m²ko
terraza



Ermuaranbide
Etxebizitza salgai
2 logela, komuna, sukaldea,
egongela, ganbara, igogailua.



Santa Klara
Etxebizitza salgai
3 logela, komuna, sukaldea, jan-
gela-egongela, terraza, garajea,
igogailua.



Urazandi
Garajea salgai
40 m²



Mendaro
Etxebizitza salgai
Sukalde-jangela, egongela, 3
komun, 3 logela, garajea, txo-
koa, ganbara eta lorategia.



**Zatoz gure etxebizitza aukera
zabala ezagutzera!**

- 45.000 € - 450.000 € bitartean
- Erdigunean edota auzo lasaietan
- Ezaugarri ezberdin eta gustu guztietarako

Promozio
berria

3 apartamentu
kiroldegi parean

San Frantzisko Kalea, 34
699 953 021 / 943 748 427

arbeloainmobiliaria@euskalnet.net



ETXEBIZITZA GEHIGARRIA

► Interes mugikorrek mailegu baten hileko kuota eta etxe baten hileko alokairuaren prezioak oso antzekoak dira une honetan bezeroek aurkezten dizkiguten kasuak aztertuz. Adibidez, 150.000 euroko mailegu baten kuota, 30 urterako epean, 500 euroen inguruan dabil. Esan bezala, alokairu baten parekoa litzateke.

Egia da, interesak gora eginez gero, kuota horrek gora egingo duela, baina segurtasun osoaren bila dabilzan horiek interes finkoko mailegu bat egin dezakete arazo hori ekiditeko. Horretarako ere inoiz baino une hobea da, esan dugun bezala, interesak minimo historikoan baitaude. Nahiz eta mailegu hauek zertxobait garestiagoak izan, la-saitasuna erabatekoa izango da bezeroarentzat.

Zentzu horretan, eta arrazoari hauen ondorioz, mugimendu handiagoa ikusten ari gara gure bulegoetan, eta kontsultak areagotzen ari dira, batez ere gazteetan artean.

“Interes mugikorrek mailegu baten hileko kuota eta etxe baten hileko alokairu antzekoak dira une honetan”

Azken urteetan, merkatua oso geldirik egon da, krisialdiaren eraginez beldur handia sortu baita. Oraingo egoera hau positibotzat jotzen dugu, jendeak ere gauzak beste animo batekin ikusten dituela islatzen duelako.

Bukatzeko, bi gauza:


► Orain dela urte batzuk gertatzen zena aurka, jendeak eskatzen dituen maileguen zenbatekoak bere benetako ekonomia egoerara askoz egokituago daude eta kopuru txikiagoa eskatzen da. Lehen denek nahi zuten terraza handi bat zeukan etxe berri bat erostea. Gaur egun, bakoitzak bere egoerara moldatzen dena erosten du, ondokoak erosi duenari hainbeste begiratu gabe.

► Oso garrantzitsua iruditzen zait –are gehiago, garrantzitsuena dela esango nuke–, zein den norberak daukan lan egoera. Ziurrenik, lan egonkor bat izateak bultzatuko du jendea aurrerapauso ematera hasieran aipatutako lau adierazle horien aurretik, horrek ematen duen segurtasuna dela-eta.

GABILONDO
INMOBILIARIA AGENTZIA

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR
943 744 467

**120.000€-tik
beherako etxebizitzak**




Santa Ana

3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bi balkoi eta ganbara. Igogailua.



Pedro Mugurutz

3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.



Urazandi

3 logela, sukaldea, bainugela eta terraza. Igogailua.



Ermuaranbide

3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua.



Salbador Etxea (Santa Klara)

Bi apartamendu, lur sail eta guzti

Lersandi 1, behea - DEBA
943 192 263
www.atarideba.com



Astillero - DEBA

220.000€

69 m², 2 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, igogailua (garajea aukeran).



Pedro Mugurutz

180.000€

110 m², 3 logela, egongela, komunak, balkoiak, igogailua.




Baserría - MENDARO

Baserría, Mendaroko Kilimon bailaran, guztiz berria, prezio onean.



DEBA

Eraikin berria, atikoa, 5 logela, 3 komun, 3 kotxerentzat garajea eta trastelekua. Terraza ikusgarria.



GARAJEAK- DEBA

Hondartza aurreko aparkalekuan hainbat garaje salgai. Itxiak eta marradunak.



Adituen ahotik

Etxebizitza bat eskuratzea gure bizitzan egin dezakegun erosketarik garrantzitsuenetakoa da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da higiezinaren sektoreko adituen gomendioak jasotzea. Bakoitzaren ibilbide profesional eta esperientziak gain, lege eta zerga faktoreek ere eragina dutenez, aditu baten laguntza erabakiorra izan daiteke dirua aurretzeko.

Gure inguruan sektoreko aditu bikainak daukazu eskura. Ardura eta arreta personalizatua eskainiko dizute etxebizitza salgai jarri zein erosi nahi duzunean, baita neurria egindako aholkularitza eskaini ere. Adituek badakite bezeroaren lehentasunak eta beharrak antzematen. Erosketen zein salmenten osteko tramiteak eta aholkuak ez utzi edonoren esku.

Carmen Mujika (Arbeloa Inmobiliaria)



www.inmobiliariapsxxi.com

Elgoibar
943 742 306



San Antolin
156.000€

Duplexa, bizitzera joateko. Jangela-sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela, lorategia, ganbara.



San Antolin
60.000€

60 m². 2 logela, egongela, sukaldea-jangela, bainugela. Kanpoaldera begira, leku lasaia, aparkaleku eta guzti.




Erdialdea
90.000€

95 m². Sukalde ederra, galeria, bainugela, egongela eta 3 logela. Kanpoaldera begira.



Pedro Mugurutz
156.000€

60m². Bizitzera joateko moduan. Kanpoaldera begira, igogailua, berokuntza, egongela, sukaldea, 3 logela, bainugela.



Erdialdea
210.000€

Material bikainekin berritua. 80m². Kanpoaldera begira, berokuntza, igogailua. Egongela sukalde-jangelarekin, 3 logela, 2 bainugela.

HURRENGO ERAIKUNTZA

UZTARRI ETXEAK

11 kalitatezko etxebizitzak Elgoibarren



Etxebizitza erabilgarri eta erosoa, zentzuzko prezioan

Haua per sari berritasun berria 2018.5 m². Baita etxebizitza berri guztiak erabilgarri. Elgoibarren San Antolin zonaldean.

- 38 eta 48 metro altuerako etxebizitzak (2 eta 3 logelak dituzte)
- 10 metroko balaiak eta balkoiak dituzte
- 100 metroko bermea eta aparkalekuak dituzte
- Sakelak, jangela eta egongelak dituzte
- Sukiak dituzte eta bermea dituzte

Zona hantzenetik zentralizatua eta berritasun berria, eta 100 metroko bermea dituzte.

2 LOGELA 170.000€ ALBIDEA

2 LOGELA 207.000€ ALBIDEA



Telefonoa
943 741 528
www.bikun.com



657 saltakarrik hartu zuten parte Jose Gurrutxaga krosean



Elgoibar Ikastolak Jose Gurrutxaga krosaren 23. edizioa antolatu zuen joan den domekan, eta 657 antxitxikarik parte hartu zuten hamahiru lasterketetan banatuta. Eguraldia lagun, giro bikaina jarri zuten antxitxikari zein ikusleek herriko kaleetan. Nagusien lasterketan parte hartu zuten lagunuen artean Realak eta Rayo Vallecanok jokatu duten futbol partidarako bi sarrera ere zotz egin zituzten eta Andrea Arrietak jaso zuen saria. Zozketatu zituzten ardo botilak, berriz, Jesus Arrietak eraman zituen. Saillkapenak eta argazkiak: *barren.eus*.

Tenis eta Padel txapelketetarako izen-ematea zabalik

Elgoibarko 40-15 Tenis eta Padel elkarteak padel eta tenis txapelketak antolatu ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz. Padel txapelketa binaka jokatuko da, eta tenis txapelketa bakarka. Bi txapelketak maiatzaren 2tik aurrera jokatuko dituzte, eta hamalau urtetik gorako edonork parte har dezake. Maiatzaren 1a izango da izena emateko azken eguna. Padel txapelketan izena emateko: 687 421 602 (Gorka) edo 670 665 797 (Javi). Tenis txapelketan izena emateko: 696 577 872 (Luis) edo 670 665 797 (Javi).



Euskal Ligan jokatuko dute Sanloko kadete eta jubenilek

Sanloko jubenil eta kadete mutilen taldeek, Decak eta Beristainek, Kluben Euskal Ligarako igoera fasea jokatuko zuten aurreko asteburuan, Berangon. Jokatutako lau partidetatik bakarra galdu ostean, datorren urtean Euskal Ligan jokatuzeko txartela lortu zuten elgoibartarrek, Urdulizko taldeekin batera. Hortaz, datorren denboraldian, Sanlok Euskal Ligan kadete eta jubenilen nesken zein mutilen taldeak izango ditu.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 – Hondarribia 2 (Oho. erreg.)
Elgoibar 3 – Santo Tomas Lizoea 2 (1. erreg.)
Elgoibar 1 – Urola 0 (Jubenilak)
Aloña Mendi 3 – Elgoibar 3 (A Kadetea)
Elgoibar 5 – Aloña Mendi 0 (B Kadetea)
Ordizia 0 – Elgoibar 3 (Oho. inf.)
Billabona 0 – Elgoibar 1 (Inf. txiki)
Elgoibar 2 – Antiguoko 6 (Ale. errend.)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa
Santamaria/Aldape (Soraluze) 22 –
Conde/Txurruka 17 (Senior)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Murillo Rio Leza 2 (Nazional B)

SASKIBALOIA

Astigarragako Mundarro 62 – Viento Sur 67

ESKUBALOIA

Beristain Banaketak 19 – Urduliz 17 (Jub. mut.
Euskal Liga igoera fasea)
Deca 21 – Urduliz 39 (Kad. mut. Euskal L.)
Corazonistas 21 – Deca 27 (Kad. mut. Euskal L.)
Corazonistas 29 – Beristain Banaketak 30 (Jub.
mut. Euskal L.)
Lauko 19 – Errotaberri 24 (Senior emak.)
Anaitasuna 34 – Alcorta F.G. 28 (Sen. giz.)
Gabaz 30 – Leizaran 24 (Senior giz.)
Pneumax 36 – Legazpi 14 (Kad. nesk.)
Usurbil 30 – C. Astigarraga 22 (Kad. nesk.
Gipuzkoako Kopa)
Pulpo 30 – Bankoa 23 (Kad. Gip. Kopa.)
Cometel 46 – Bera Bera 5 (Inf. nesk.)
Dario Bus 22 – Bidasoa 18 (Inf. nesk.)
F. Iku 19 – Bar Iriongo Legazpi 19 (Inf. nes.)
Arrasate 14 – H. Txarriduna 22 (Inf. mut.)
Ereintza A 23 – Murgil 30 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23
12:00 Haundi – Touring (Oho. erreg.)
16:30 Haundi – Urola (Oho. kad.)
Domeka, 24
16:00 Elgoibar – Urola (Oho. kad.)

SASKIBALOIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 23
16:00 Viento Sur – Grupo EME Oiarso S.K.T.

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 23
10:00 H. Txarriduna – Bidasoa (Inf. mut.)
11:15 Murgil – Udarregi (Inf. mut.)
12:30 Astigarraga – Bera Bera (Kad. nes.)
16:00 Bankoa – Amenabar A (Kad. mut.)
17:45 Deca – Pulpo (Kad. mut.)
19:30 Alcorta – Ereintza (Senior giz.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 24
09:45 Sukia mutilak – Eibar (Alebin mut.)
11:00 Sukia neskak – Eibar (Alebin nesk.)
12:30 Tecnifuelle – Ereintza (Jub. nesk.)

Zergatik ez dute hitz egiten arrainek?



Garazi Lopez
(Mendaro, 7 urte)

Nik arrainak ikusten ditut batzuetan Kilimon ibaian eta ur azpian daudenez ezin dute ondo hitz egin. Beraien artean hitz egiten badute ere guk ez diegu kanpotik ondo ulertzen. Beraz, ur azpian arrain batek besteari esanda-koak sekretuak izan daitezke.

June Arrizabalaga
(Mendaro, 7 urte)

Ur azpian bizi direlako eta ez diegu-lako kanpotik entzuten. Baina nik ez dakit ziur hitz egiten duten ala ez. Pelikuletan ikusi ditut arrainak hitz egiten, baina ez zaie ezer gertatzen. Ibaian, baina hitz egi-nez gero ez dakit gertatuko zaien.



Antonella Cazard
(Mendaro, 7 urte)

Ur azpian daudelako eta ura ahoan sartzen zaielako eta batzuetan, gainera, zikina egoten da eta kalte egiten die. Nik etxean arrainak dauzkat eta ikusten ditut ahoa pixkatxo bat irekitzen, baina ez da hitz egiteko izaten, bestela ura ahoan sartuko zaie, eta nik ur garbia jarri arren, beraien kalterako da tragatzea.

Aimar Carbajo
(Mendaro, 7 urte)

Uretan egoten direlako eta uretan ezin daiteke hitz egin, bestela ura ahora sar-tzen da. Beraz, isil-isilik egoten dira ure-tan. Ni badaezpada ez naiz inoiz saiatu ur azpian hitz egiten eta lagunei zerbait esatekotan eskuekin esaten diet.



Olaia de la Arada
(Mendaro, 7 urte)

Uretan daudelako. Ni noizbait saiatu naiz uretan hitz egiten, baina ura tra-gatu eta sustoa hartu nueneg segituan utzi nuen. Beraz, arrainek ere uste dut horregatik ez dutela egiten, urik ez tragatzeko.



Haizea Aranbarri
(Mendaro, 7 urte)

Ez dakit. Ni Aquariumean egon izan naiz arrainei begira eta ikusi izan dut ahoa irekitzen dutela, baina ez dut uste elkarrekin hitz egiteko denik. Hala ere, aho mugimendu txiki horiekin uste dut elkar ulertzen dutela eta horregatik pixka bat zabaldu eta ixten dute ahoa.



Beñat Kerexeta (biloba)



Margari Lazkano (amama)

Xelebrea, alaia eta besteei laguntzen dien pertsona naiz.

Nolakoa zara?

Jendeari laguntzeko prest egoten naiz eta maitakorra ere banaizela uste dut .

Herriko plaza. Han futboleant aritzea gustatzen zait-eta.

Mendaroko gustuko txoko bat?

Garagartzako plaza. Han dago eliza eta Kontzezioko amabirjina eta berezia da niretzat

Deban. Horrela lehengusuekin egon ahal izango nintzateke sarriago.

Beste zein herritan nahi zenuke etxe bat?

Donostian, esaterako, baina Mendaro ez nuke beste inongo tokirengatik aldatuko.

Limoiairen usaina.

Zein da gehien gustatzen zaizun usaina?

Larrosen usaina gustatzen zait

Realeko ereserkia, oso futbol eta batez ere Real zalea naizelako.

Abesti bat.

Umetan mojek erakutsi ziguten kanturen bat-edo. Bestela ez naiz oso zalea ere.

Bai. Sekula ez dut eskatu, baina txakur txiki bat izatea gustatuko litzaidake.

Etxean animaliarik izango zenuke?

Ez. Umetan gurasoek untxiak, katuak, oiloak... izaten zituzten, baina nik etxean ez nituzke izango.

Ez dut normalean ezer prestatzen, behin edo behin amarekin tortilla ez bada.

Zein da ondoen prestatzen duzun jatekoa?

Biribilkia saltsan.

Kartetan berarekin ibiltzea gustatzen zait.

Zertan nahi zenukete amama-bilobek jolastea?

Hainbeste gauzatan jolastu ondoren zaila da bakar bat aukeratzen, baina ipuimak kontatzen, adibidez.



'Berrikasi eta Berrikusi' gogoetaren gaineko hitzaldia Elgoibarren, apirilaren 25ean



Kike Amonarrizek eta Iker Martinez de Lagosek *Berrikasi eta Berrikusi* dokumentua aurkeztuko dute apirilaren 25ean, astelehena, Elgoibarko Kultur Etxean, 19:00. Beste hainbat lagunekin euskalgintzaren azken 50-60 urteetako irakurketa egin ondoren, horren berri emango dute. Baina etorkizunari ere begiratu diote lan horretan, eta aurrerantzean euskalgintzan jarduteko lanildoak ere proposatuko dituzte, hitzaldi ostean eztabaidatzeko.

Berrikasi eta Berrikusi dokumentua

“euskaltzaletasunaren azken hamarkaden irakurketa kritiko bat da, etorkizuna begi berriz ikusteko helburuarekin egina. Eztabaida zintzoa suspertu nahi luke egin dugunaz, eskarmentu horrekin hobeto ekin diezaiogun egiteko dugunari”.

Edozeinentzat atek irekita

Euskaltzaleen Topagunearen baitako Topalabe taldeak dokumentua aurkezteko Elgoibarko Izarrak hitzaldi-tailerra antolatuko du Elgoibarren. Lorea Agirrerekin euskaldunok garenaren kontzientzia landu zuten otsailean eta dokumentu honekin, euskalgintzan orain arte egindakoaren eta aurrerantzean egin daitekeenaren kontzientzia landuko dute. Euskalgintza gaiarekiko interesa duen edozein lagunek izango du bertan parte hartzeko aukera.

June Arregi eta Nahia Carrillo saridun bertso txapelketan

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako bertso idatzien sariak banatu zituzten domekan Eibarren. LH 3. eta 4. mailakoetan Elgoibar Ikastolako June Arregik txapela jaso zuen eta aipamena, berriz, Nahia Carrillok. Bidegorriko ibilaldiari honako bertsoa jarri zion Junek:

*Ibiltzea guk denok
gustuko dugunez,
ondo pasatuaz gain,
osasuntsu denez,
batzuk bizikletan ta
beste batzuk oinez,
nahi gabe herriari
buelta bat emanaz.*



Askotariko musika doinuek jantzi zuten asteburuan Elgoibar

Barixakuan, euri tantek ez zuten Inazio Bereziartua Musika Eskolako txaranga ikaratu eta doinuek jantzi zituen herriko hainbat kale, jendea lagun zuela. Geldialdia egin zuten Kalegoen plazan eta udaletxe azpian, pareko arkupeetan eta parrokia aurrean hainbat musika eta dantza saio izan ziren: haizezko instrumentu, akordeoi, trikiti eta dantza ikasleek jende aurrean erakutsi zuten ikasten ari direna.



Bestalde, zapatu gauean teilatupean, Sutegixa gazte-txean, kontzertua izan zen. Musika taldeak ez ziren herrikoak, bai, ordea, gerturatu ziren entzule asko. Brigada Improductiva eta Egurra Ta Kitto taldeek giro polita sortu zuten zeukaten dena emanaz, eta entzuleek asko gozatu zuten. Zapatu honetan ere ez da muskarik faltako gazte-txean Khri Rios Djak saioa eskainiko baitu 23:00etan hasita.



Haritz Arrieta

22 BARIXAKUA

17:30 Etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko jardunaldiak. (Egitaraua 8. orrialdean).

18:00 Parisko Zirkoa. Sarrera: 10 euro. Mintxetako aparkalekuan.

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun Zentroko azpiko aldean.

23:30 Komedia gaua. Gorka Aginagalde aktorearen bakarriketa. Tantaka tabernan.

23 ZAPATUA

9:00 Etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko jardunaldiak. (Egitaraua 8. orrialdean).

11:30-13:30 Atxutxiantxixika. HH2-LH2 bitarteko umeentzat. Antolatzailea: Atxutxiamaiika. Kalegoen plazan.

12:00-15:00 eta 19:00-21:00 Pintxo lehiaketa Mendaron: Arrats, Menditxo, Ormola, Chow, Uztargi, Lagun Betikoak, Toki Alai, Txirristaka, Aitz-Beltz eta Luzaide.

17:00 Parisko Zirkoa. Sarrera: 10 euro. Mintxetako aparkalekuan.

23:00 Khris Rios DJa: *All night long*. Sarrera+edaria 10 euro. Sutegixan.

24 DOMEKA

12:00-15:00 eta 19:00-21:00 Pintxo lehiaketa Mendaron.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. *The golden year* obertura, *Paseando con Chueca*, *A tribute to Elvis*, *Highlights from "Annie"* musika eta *Brisas de Mariola* pasodoblea. Herriko Antzokian.

12:30 eta 17:00 Parisko Zirkoa. 10 euro. Mintxetako aparkalekuan.

25 ASTELEHENA

19:00 Hitzaldi-tailerra: *Berrikusi eta berrikusi*. Euskararen azken mende erdiaren errepaso, irakurketa horretatik etorkizuna ondorioztatzeko. Hizlariak: Kike Amonarriz eta Iker Martinez de Lagos. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kultur Etxean.

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria: *Karabi Karaba*. Ines Bengoa. Goizon Garate Udal Liburutegian.

26 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: *Maria Estuardo*, Stefan Zweig. Gidarua: Consuelo Carrere. Antolatzailea: Haizea. Udal Liburutegian.

29 EGUAZTENA

17:30 Kiribil. Maalako parkean.

20:30 Antzerkia: *Kreditua*. Zuhaitz Gurrutxaga eta Joseba Apaolaza: Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Tenemos que hablar'

22 Barixakua, 21:30
23 Zapatua, 19:00 eta 22:15
(Jatorrizkoa azpitoluekin)
24 Domeka, 19:00
25 Astelehena, 21:30



'A zer nolako heroiak'

24 Domeka, 16:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G	9:00 - 22:00	
U	22 Barixakua	ORUESAGASTI
A	23 Zapatua	BARRENETXEA
R	24 Domeka	BARRENETXEA
D	25 Astelehena	IBAÑEZ
I	26 Martitza	GARITAONANDIA
A	27 Eguaztena	ETXEBERRIA
K	28 Eguena	FERNANDEZ
	29 Barixakua	YUDEGO

22:00 - 00:00
Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00
IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19
Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

LANA.....
Eskaerak

Geriatría laguntzailea naiz eta adinekoak zainduko nituzke. Orduka lan egiteko eta paseora ateratzeko prest. Prestutasun osoa. 646 931 162

Igeltsero zein garbiketa lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest. Bestelako lanetarako ere gertu. 632 459 224

Etxebizitza zein portaletako garbiketak, buzoietarako banaketa, zein obra laguntzaile lanak egiteko prest nago. 631 162 014

Buzoietarako banaketa zein obra laguntzaile lanak egiteko prest. 602 865 324

Adinekoak zaintzeko zein sukalde laguntzaile aritzeko prest. Orduka edo interna. 631 153 274

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, baita ospitalean zaintza lanak egin ere. Esperientzia eta diploma daukat. 671 989 434

Adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere. Arduratsua, esperientziaduna eta baimenak indarrean. Erreferentzia onak. 631 681 516

Adinekoak zaintzeko prest orduka zein etxean bertan bizi izaten. Arduratsua naiz. 612 278 600

Adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere. Esperientzia eta erreferentzia onak. 631 925 362

Umeen zaintza, garbiketa eta sukalde laguntzaile lanak egingo nituzke arratsalde. 654 304 337

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 602 143 798

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 612 243 604

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka zine etxean bertan bizi izaten. Erreferentziak daukat. 631 849 522

Pintore, elektrikari eta iturgin lanak egiteko prest. 632 873 111

Lanerako prest. Iturgintza, elektrikari edo igeltseritza arloan zein zerbitzari gisa edo adinekoak zaintzen. 612 535 707

Adinekoak zaintzeko edo tabernak eta portalak garbitzeko prest. Orduka. 602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest. Gavez zein orduka. Elgoibartarra naiz eta esperientzia daukat. 660 511 781 / 943 742 330

Interna edo orduka lan egingo nuke garbiketa edo zaintza lanetan. 655 094 780

Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Baimendutako egoeran. 622 153 750

Garbiketa edo eta ume zein nagusien zaintza lanak egiteko prest. 633 808 931

Nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 616 833 195

Lan bila nabil. 29 urte. Esperientzia. Ohituta nago lanean. 612 216 458

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 620 152 595

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 684 374 971

Lan bila. Orduka edo interna. Garbiketan edo adinekoak zaintzen. 628 738 472

Lan bila. Interna edo adinekoak zaintzen. 642 267 113

Eskaintzak

Emakume euskalduna behar da goizean umea ikastolara eraman eta garbiketak egiteko. Interesatuek deitu 648 203 775 zenbakira 20:00ak eta 21:00ak artean.

Mekanikaria behar dugu. Ajuste eta muntaia mekanikoan ibilia. Bidali kurrikuluma Zarauzko 309 posta kutxara.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza salgai. 88 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, egongela, sukal-

dea, bainugela. Berrituta. Errosario kalean. 170.000 euro. 647 438 640 edo marlboro67@hotmail.es

Etxebizitza ematen dut alokairuan Elgoibarko Errosario kalean. Hiru gela, sukalde-jangela, sala eta komuna ditu. Gelaka ere alokatu dezaket. 688 650 060 (Laura).

GARAJEAK.....
Salgai

Garaje itxia salgai edo alokagai. 103 metro koadro, 4,10 metroko altuera. Biltegirako egokia. Autokarabanak sartzeko dira. Olasopen 661 827 292 (arratsaldean deitu).

KINTADAK.....

1971n jaiotako kintada maiatzaren 28an. 12:00etan luntxa Tantan. Bazkaria Karate jatekian. 50€. Izen emateko azken eguna: maiatzak 20. ES0521002414130200096268

1954an jaiotako kintada ekainaren 11n. 13:00etan harrera-luntxa Usoan. Bazkaria Sigman. 50€ Laboral Kutxa 3035 0007 21 0071056285. Izen ematea: maiatzaren 27a baino lehen.

1991n jaiotako bazkaria ekainaren 4an Belaustegin. Izen ematea apirilaren 29a baino lehen izen-abizenekin. 65€. ES31 2095 5036 50 9115859510 (Kutxa). Autobusa egongo da. Animatu!

BESTELAKOAK.....

Katu eme pertsu galdu da San Roken. Beltza, begi horiekin. Inork ikusi gero, deitu, mesedez. 657 797 016



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxebizitza baten jabea naiz eta errentamendu kontratu bat egingo dut etxebizitza alokairuan hartu nahi duen pertsona batekin. Kontratuan pertsona bakarra ala hasieratik bertan biziko diren biak sartu behar ditut? Gainera, etxebizitza alokairuan hartuko duen maizterrak esan dit, urte bukaeran beste lagun bat biziko dela etxe horretan. Beste kontratu bat egin beharko nuke hura sartzeko?

Lehen kasuan garrantzitsua da bi alderdien nahia zein den jakitea. Kontratua pertsona bakarrarekin legezko eginez gero, pertsona hori titular bakarra dela ulertuko genuke, eta berak dauzka eskubide eta betebeharrak –adibidez, errenta ordaintzea– guztiak sartu beharko dira kontratuan maizter moduan.

Bigarrenean, berralokatzea ez bada, ez da derrigorrezkoa izango kontratu berri bat egitea, beraz, maizter berriak ezingo du inolako eskubiderik eskatu. Alokairu eskubideak izatea nahi bada espresuki jarri beharko da.

Etxebizitzan sartzen dena bertan dagoenaren izatezko bikote edo ezkontidea bada hainbat eskubide zehatz edukiko lituzke errentamendu titularrak kontratuari uko egingo balio edo bertan behera utziz gero.

AHOLKUA: Errentamendu kontratua sinatu baino lehen, ondo aztertu zein den zuri interesatzen zaizun egoera, aurreikusitako gerta ez dadin.

ROSA Mª PINTADO: *Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*





Hurrengo zenbakirako, argazkiak martxoaren 30ean, eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Gure etxeko txikiak 3 urte bete ditu. Zorionak, **Irtati**!! Aitaxo, amatxo eta Madiren partez.



Zorionak, **Sara**, familia guztiaren partez!! Ondo pasa zure urtebetetze eguna!



Zorionak, gure **printzesa Nahia**ri, zure 7. urtebetetzean. Elgoibarko familiaren partez muxu handi bat.




Hodei, zorionak! Dagoeneko 4 urte. Musu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **mutil haundia**ri, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Gadea**! Gure neska maitagarriak 6 urte bete ditu. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **bikote**!!! Ondo-ondo pasatu zuen ezkontza egunean!!! Muxu haundi bat familiako guztien partez!!!



Zorionak, **Intza**, asteazkenean 5 urte handi bete zenuelako. Muxu handi bat. Maite zaitugu.



Zorionak, **Lucia**, zure lehenengo urtebetetzean! Aupa txikitxo.



Zorionak **Ekipazo**. 1980tik urte pila bat pasau dia eta gu ere zapatuan jende mordo bat elkartu ginan. Urriak aurrera eta guk ere aurrerantzen jarraituko dogu hola elkartzen. Zorionak, elkartu ginanai eta noski, dana prestatzeko ahalegina ein zabenei. Oso ondo pasau genduan eta goguan gordetzen dia holako egunak. Laster arte lagunak.

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310
Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.

A. Garate
Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
www.uzurioptika.com

ESKAINITZA BEREZIA
eguzkitako betaurreko graduatuak

68€ tik hasita

PROGRESIBOAK


199€ tik hasita

RPS 183/12



Josu Juaristi


Ainhoa Lendinez



Zaid Ait Malek. Mendiko korrikalaria. Marokoarra jaiotzez, 10 urte Espainian bizitzen. Legeak ezarritako behar adina egun lan egiteko modurik ez, eta jaioterrira itzultzeko arriskuan. Baloiri ostikoak ematea aukeratu izan balu, urretan hartuko luke bainua egunero. Darko Kovacevic serbiarrak bezala: 1.500 euro hilean legez, 90.000 euro hilean berez. Huskeria, hala ere, Ronaldo eta enparauen soldatarekin alderatuta. Baina ez dugu atzerritarrik nahi gurean, diru-laguntzak kentzen dizki-

gutelako. Horregatik kendu du Gipuzkoako Aldundiak AGI, 11 milioi euroko gastua dakarrelako urtean, eta kontuek ez dutelako ematen Realak 2002-2008 artean utzitako ondarea estaltzeko. Urrun daude Lesbos, Idomeni eta Siria; ontziak, hesiak eta beste. Hango kontuak dira, ez dira gure kontuak. Baina politikak dira errefuxiatuen argazkiak, 2016ko Pulitzer Saria irabazteraino politikak. Nik ez dut Zaid ezagutzen, baina askotan ikusi dut "gure" mendietan korrika, irribarrez beti, eskerrak ematen beti. Hura ikustean beti pentsatzen dut: "Ezina, ekinez egina". Hala kirolean, nola bizitzan. Mundura, gozatzeko etorri zirelako batzuk; haiek jarritako hesiak gainditzeko beste batzuk.

"Zaid ikustean beti pentsatzen dut: 'Ezina ekinez egina'. Hala kirolean nola bizitzan".



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



I. URTEURRENA

Jose Manuel Ansorregi Egaña

"Ibiri"

2015eko apirilaren 27an hil zen, 58 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilak 24, eguerdiko 12:00etan Azpilgoetako parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean
beti izango zara
gure artean***

Etxekoak



V. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

*Zu gabe bizitzen ikasi behar dugun arren,
guretzat ahaztezina izango zara.*

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesus



I. URTEURRENA

Simon Zulaika Arriola

2015eko apirilaren 19an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilak 24, goizeko 12:00etan Azpilgoetako parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Kiribilduz

2016ko udaberriko egitaraua

APIRILAK 29

TRAPUJALE, txotxonglo erraldoi eta zuzeneko musikarekin. Kultur Etxeko Sotoan 17:30ean.

MAIATZAK 6

KIRIBILEN IKUSKIZUNA. 17:30ean. Madako parkean.

MAIATZAK 7

EKOGUNERA FAMILIA IRTEERA. Zotoz baratza ekologikoak ezagutzera! (izen-emateak apirilaren 25etik aurrera zabalik)

MAIATZAK 13

KIRIBILEN IKUSKIZUNA. 17:30ean. Madako parkean.

MAIATZAK 29

FAMILIA EGUNA SAN PEDRON! Kuskizunak jolasak musika piknika zelain .. ludotekakoekin elkarlanean.

EKAINAK 10

KIRIBILEN IKUSKIZUNA. 17:30ean. Madako parkean.

EKAINAK 11-12

**ASTEBURU PASA HONDARRIBIKO
ATERPETXEAN (FAMILIENTZAT).**

(izen-emateak maiatzaren 9tik aurrera zabalik).



Antolatzailea



Babeak



Laguntzaileak

